

Goi-teknologiako manufaktura-industriak garrantzia hartu du sektorean oro har, eta balio erantsi gordinaren % 12,8 bereganatu du 2023an Euskal AEn

Goi-teknologiako sektoreko berrikuntzan (% 6,4) eta barneko I+Gn (% 4,0) sektoreen guztizkoan baino (% 1,7 eta % 0,9, hurrenez hurren) Intentsitate handiagoa

Goi-teknologiako manufaktura-industriak **goi-teknologiako sektorearen (GTS)** balio erantsi gordinaren (BEGd) % 12,8 bereganatu zuen 2023an Euskal AEn, 2013aren aldean ehuneko hiru puntu hazi ondoren, Eustatek landutako datuen arabera. Goi-teknologiako sektorea —oinarri teknologiko sendoa duten eta ezagutzak azkar berritzen dituzten jarduerak barne hartzen dituena— honako hauek osatzen dute: **goi-teknologiako manufaktura-sektore industrialak, erdi-goi teknologiako manufaktura-sektoreak, eta goi-teknologiako edo puntako teknologiako zerbitzuen sektoreak.**

Goi-teknologiako manufaktura-industriaren hazkunde erlatibo handiagoa gorabehera, erdi-goi teknologiako manufaktura-industria da oraindik nagusi (BEGd-aren % 58), nahiz eta ia puntu erdi jaitsi duen bere ehunekoa. Goi-teknologiako edo puntako teknologiako zerbitzuak, bestalde, guztizkoaren % 29,2 izan ziren, baina 2,6 puntu jaitsi ziren duela 10 urteko datuekin alderatuta.

Bestalde, negozio-zifraren gaineko berrikuntzako gastuaren ratioak (berrikuntzako intentsitatea) eta I+Gko gastuarenak (intentsitatea I+Gn) handiagoak dira GTS sektorean sektoreen guztizkoan baino. Zehazki, *berrikuntzaren intentsitatea* % 6,42koa da sektore horretan, sektore ekonomiko guztiak kontuan hartuta % 1,67koa den bitartean. Barneko I+Gren kasuan, ratioa % 4,03koa da sektorean, eta % 0,94koa guztizkoan.

Euskal AEko Goi-teknologia sektoreko magnitude nagusiak . 2013-2023

	Enpresa kopurua	Lanpostuak	Negozio-zifra (1)	Balio erantsi gordina faktoreen kostuan (1)
2023	5.105	101.851	27.230.220	8.193.741
2022	5.032	98.653	24.979.314	7.258.862
2021	5.033	95.412	21.812.167	6.727.658
2020	4.946	93.732	19.836.024	6.391.263
2019	4.927	94.777	22.430.228	7.010.523
2018	4.881	93.458	21.336.764	6.777.987
2017	4.789	89.710	20.306.692	6.516.869
2016	4.852	87.727	19.198.452	6.251.960
2015	4.787	85.100	17.696.422	5.989.997
2014	4.745	84.419	16.872.644	5.746.375
2013	4.718	86.571	17.085.535	5.806.417

(1) Mila euro

Data 2025eko Uztailaren 9a

Iturria: Eustat. Goi teknologiako sektorearen estatistika

Oro har, goi-teknologiaren sektoreak % 41,1 egin zuen gora bere BEGd-an termino arruntetan, eta 5.800 milioi eurotik 8.200 milioi eurora igaro zen 2013 eta 2023 artean. Manufaktura-industriak, goi-teknologia zein erdi-goi teknologia biltzen dituenak, gidatu zuen hazkunde hori, % 46,4ko aldakuntzarekin 2013 eta 2023 artean. Bereziki nabarmentzen da, manufaktura-industriaren barruan, goi-teknologiakoa, ia bikoiztu egin baitzuen bere BEGd-a (% 83,9), eta horrek eragin du GTS sektorearen guztizkoan duen pisua 2013ko % 9,8tik 2023ko % 12,8ra igaro izana. Erdi-goi teknologiako manufaktura-industriak, berriz, % 40,1 egin zuen gora. Goi-teknologiako edo puntako teknologiako zerbitzuak ere nabarmen hazi ziren (% 29,8).

Bilakaera positiboa izan duen arren, GTS sektoreak ekonomiaren BEGd osoan izan duen partaidetza egonkor mantendu da, 2013ko % 9,7tik 2023ko % 9,8ra pasatuz.

Azken 10 urteetan, sektoreko enpresen guztizko kopuruak % 8,2ko hazkundea izan du, 4.718 enpresa izatetik 5.105 izatera pasatuz. Hala ere, goi eta erdi-goi teknologiako manufaktura-industriak % 14,5eko murrizketa izan zuen. Industriaren barruan, erdi-goi teknologiako bezala sailkatutako enpresa mota da eragin handiena jasan duena, enpresen kopurua % 17,2 jaitsi baita; izan ere, goi-teknologiako manufaktura-enpresen kopurua % 11,8 hazi zen. Halaber, goi-teknologiako zerbitzuek bilakaera positiboa (% 20,9) izan dute. Termino erlatiboetan, GTS sektoreak, oro har, handitu egin zuen guztizko ekonomikoaren gaineko partaidetza: 2013an enpresa guztien % 2,9 izatetik 2023an % 3,5 izatera igaro zen.

Bestalde, lanpostuen kopurua, oro har, % 17,7 hazi zen, 86.571 lanpostu izatetik 101.851 izatera pasatuz aztertutako aldian. Goi-teknologiako zerbitzuek, eta goi eta erdi-goi teknologiako manufaktura-industriak hedatu egin dira, baina maila desberdinean: % 27,7ko hazkunde metatua izan dute lehen kasuan eta % 13,3koa bigarrean.

Manufaktura-industriaren kasuan, beste behin ere, bilakaerarik aipagarriena goi-teknologiakoan ikusten da (% 29,7), erdi-goi teknologiako industriaren enpleguan izandako hazkundea (% 10,5) gaindituz.

Goi-teknologiako sektore osoak ekonomiaren enplegu osoan zuen partaidetza ere handitu egin zen, baina neurrian, % 8,7tik % 8,9ra pasatuz.

Enpresa kopuruaren eta lanpostuen bilakaera bateratuaren ondorioz, 2013 eta 2023 artean enpresa bakoitzaren batez besteko tamaina 18,3 langile izatetik 20 izatera igo da; bereziki aipagarria da manufaktura-sektorean, 35,7 langile izatetik 47,3 izatera igaro baita (+% 32,5). Goi-teknologiako zerbitzuen sektoreak bere egiturarik atomizatuenera eutsi dio, batez besteko tamainak ia ez du aldaketarik izan, eta aldi berean enpresa bakoitzeko 8,6 langile izatetik 9,1 langile izatera iritsi da (+% 5,6).

Aldi horretan, GTS sektorearen negozio zifra % 59,4 hazi zen, 17.100 milioi eurotik 27.200 milioi eurora uneko prezioetan, batez ere manufaktura-industriaren portaerak bultzatuta (guztizkoaren % 84,7), azken hamarkadan % 62,1 hazi baita. Manufaktura-industriaren barruan, goi-teknologiako azpisektoreak eta erdi-goi teknologiakoak antzeko bilakaera izan dute, % 59,1 gehiago lehenak eta % 62,5 gehiago bigarrenak. Goi-teknologiako zerbitzuek —guztizkoaren % 15,3— ere bilakaera positiboa izan dute 2013. urtearekiko, % 45,9 hazi baitira.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, goi-teknologiaren sektoreko magnitude guztiek hobera egin dute. Horrela, enpresen kopurua % 1,5 hazi da, lanpostuen kopurua % 3,2, negozio zifra % 9,0 eta balio erantsia % 12,9.

Euskal AEko Goi-teknologia sektoreko magnitude nagusiak eskualdeka eta jarduera ekonomikoa (milaka euro). 2023

	Enpresak (1)	Negozio kopurua	Balio erantsi gordina cf	Lanpostuak
Teknologia handiko eta ertain-altuko sektorea	5.105	27.230.220	8.193.741	101.851
Lurralde historikoa				
Araba / Álava	730	8.105.815	1.384.177	17.059
Bizkaia	2.708	8.779.763	3.393.297	41.113
Gipuzkoa	1.818	10.344.642	3.416.267	43.679
Teknologia altuko eta ertain-altuko manufaktura-industria	1.449	23.060.500	5.801.073	68.499
Goi-teknologia	180	3.025.246	1.048.728	11.606
Goi-ertain teknologia	1.269	20.035.254	4.752.345	56.893
Goi-mailako teknologiako edo puntako teknologiako zerbitzuak	3.656	4.169.720	2.392.668	33.352

(1) Baliteke enpresa-kopuruaren lurralde-batura ez etortzea guztizko kopuruarekin

Jarduera duten lurralde historiko bakoitzean behin zenbatu dira, eta EAE osoan behin bakarrik.

Data 2025eko Uztailaren 9a

Iturria: Eustat. Goi teknologiako sektorearen estatistika

Goi-teknologiaren sektoreak enpresa-sektorearen I+Gn barne-gastuaren % 74,9 egikaritu du, eta sektore guztien % 57,8

Goi-teknologiako sektorean, enpresen % 13,2k I+Gko jarduerak egiten dituzte, sektore guztietan oro har hartuta ematen den ehunekoa (% 1,1) baino askoz handiagoa. Gainera, sektore horrek enpresa-sektorean I+G egiten dutenen % 44,2 biltzen du, eta enpresa-sektoreak gauzatutako I+Gko barne-gastuaren % 74,2 egikaritzen du, edo sektore guztiek gastatutako % 57,8.

GTS sektorean I+Gn diharduten langileei dagokienez, aipatzekoa da 2023an 11.748 pertsona enplegatu zirela *arduraldi osoko baliokidetzan* (AOB), enpresa-sektoreak I+Gra bideratzen dituen langileen % 71,4, edo % 50,4, sektore guztiek jarduera horietara bideratzen dutenarekin alderatuz gero. Emakumeak, 3.911 ziren, guztien % 33,3. AOBko langile guztietatik 7.828 ikertzaileen kategoriakoak ziren, eta horietatik 2.613 emakumeak ziren, % 33,4.

Euskal AEko Goi-teknologia sektorean (IKT) I+Gn ari diren establezimenduak eta Dedikazio Osoko Baliokidetzako langileak, lurralde eta jarduera ekonomikoaren arabera, okupazioari eta sexuari jarraiki. 2023

	Establezimendu kopurua	Langileak (DOB)			Ikertzaileak (DOB)		
		Guztira	Emakumeak	Emakumeak %	Guztira	Emakumeak	Emakumeak %
I+G GUZTIRA	1.594	23.299,7	8.687,7	37,3	16.304,9	5.878,5	36,1
Enpresa sektorea I+G	1.522	16.452,4	5.116,1	31,1	11.061,0	3.435,9	31,1
Teknologia handiko eta ertain-altuko sektorea I+D	673	11.748,0	3.910,6	33,3	7.827,8	2.613,1	33,4
Lurralde historikoa							
Araba / Álava	96	1.160,8	387,2	33,4	776,3	247,9	31,9
Bizkaia	274	4.417,4	1.525,1	34,5	3.095,0	1.024,5	33,1
Gipuzkoa	303	6.169,9	1.998,2	32,4	3.956,5	1.340,7	33,9
Teknologia altuko eta ertain-altuko manufaktura-industria I+D	311	4.379,5	1.095,5	25,0	2.362,6	602,2	25,5
Goi-teknologia	65	1.377,4	380,4	27,6	839,4	211,4	25,2
Goi-ertain teknologia	246	3.002,1	715,1	23,8	1.523,2	390,8	25,7
Goi-mailako teknologiako edo puntako teknologiako zerbitzuak I+D	362	7.368,5	2.815,1	38,2	5.465,2	2.011,0	36,8


DOB: Dedikazio Osoko Baliokidetzak

Data 2025eko Uztailaren 9a

Iturria: Eustat. Goi teknologiako sektorearen estatistika

Berrikuntzari dagokionez, I+Gn gertatzen den bezala, alde nabarmenak daude sektoreen guztizkoaren eta erdi-goi teknologiakoen guztizkoaren artean. Horrela, 2023an, sektore honetako establezimenduen % 43,5 berritzaileak izan ziren, sektore guztiak kontuan hartuta % 26,2 izan ziren bitartean. 10 langile edo gehiagoko establezimenduetan, ehuneko horiek % 61,4ra iritsi ziren lehenengo kasuan, eta % 38,4ra bigarreanean.

I+G+b goi-teknologiako enpresetan eta sektore guztietako enpresetan (%). 2023



Iturria: Eustat. Goi teknologiako sektorearen estatistika

Goi eta erdi-goi teknologiako establezimenduek 1.873 milioi euro bideratu zituzten jarduera berritzaileetara 2023an, sektore guztien gastu osoaren erdia baino gehiago, % 52,5 hain zuzen ere. Gastu horretatik 1.745 milioi euro 10 langile edo gehiagoko establezimenduei zegozkien, hau da, tamaina horretako enpresek jarduera horretan gastatutako guztizkoaren % 55,6.

Goi-teknologiako sektoreak baliabide gehiago bideratzen ditu I+G+Bra

Agerian geratzen da, halaber, goi-teknologiako sektoreak gainerako sektoreek baino baliabide gehiago bideratu zituela I+G+Bra, "Berrikuntza" eta "Barneko I+G"ko intentsitate-ratioak kontuan hartuta. Zehazki, *berrikuntzaren intentsitatea* % 6,42koa da sektore horretan, sektore ekonomiko guztiak kontuan hartuta % 1,67koa den bitartean. Barneko I+Gren kasuan, ratioa % 4,03koa da sektorean, eta % 0,94koa guztizkoan.

Euskal AEko Goi-teknologia sektoreko berrikuntzako eta I+G intentsitatea lurralde eta jarduera ekonomikoaren arabera (%). 2023

	Guztira		10 langile edo gehiago	
	Berrikuntza maila (1)	Barruko I+G maila (2)	Berrikuntza maila (1)	Barruko I+G maila (2)
SEKTOREAK, GUZTIRA	1,67	0,94	2,27	1,36
Teknologia goi-sektorea eta erdi-goi sektorea	6,42	4,03	6,42	4,17
Lurralde historikoa				
Araba / Álava	4,20	1,61	4,01	1,51
Bizkaia	7,82	4,47	7,83	4,67
Gipuzkoa	6,23	4,88	6,40	5,18
Teknologia altuko eta ertain-altuko manufaktura-industria	3,47	1,73	3,52	1,81
Goi-teknologia	5,93	2,59	6,02	2,62
Goi-ertain teknologia	2,92	1,54	2,95	1,62
Goi-mailako teknologia edo puntako teknologia zerbitzuak	18,43	13,37	19,85	15,07

(1) Berrikuntzaren garrantzia: (berrikuntzako gastuak/negozioen kopurua)*100

(2) Barruko I+Garen garrantzia: (barruko I+G gastuak/negozioen kopurua)*100

Data 2025eko Uztailaren 9a

Iturria: Eustat. Goi teknologia sektorearen estatistika

Era berean, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) eta merkataritza elektronikoaren erabilerak hedatuago daude sektore honetako enpresetan sektore guztietako enpresetan baino. 2023an, sektore horretako establezimenduen % 55,2k egin zuten “merkataritza elektronikoa”; sektore guztiak batera hartuta, berriz, % 29,2k.

Ehuneko horiek erakusten dute erosketa elektronikoak egin zituzten sektore horretako establezimenduak % 52,1 izan zirela, sektore guztiak hartuta erosketa elektronikoak egin zituztenen % 26,3ren eta salmenta elektronikoak egin zituzten goi-teknologia sektoreko establezimenduen % 16,4ren aldean; zifra hori, sektore guztiak kontuan hartuta, % 8,8koa izan zen.

Hala ere, sektore horrek ondasunen kanpo-merkataritzan duen eragina ez da bereziki esanguratsua. Esportazioak 1.226,7 milioi eurokoak izan ziren (guztira 32.750,4 milioi izan ziren), eta inportazioak, berriz, 830,6 milioi eurokoak (guztira 26.944,2 milioi inportatu ziren). Zifra horiek esportazio eta inportazio guztien % 3,7 eta % 3,1 dira, hurrenez hurren.

Truke horietarako eta esportazioetarako gehien erabiltzen diren produktuen artean honako hauek nabarmentzen dira: “Makineria eta ekipo mekanikoa” (% 33,6), “Eraikuntza aeronautikoa eta espaziala” (% 23,3), “Armak eta munizioak” (% 16,0) eta “Material elektronikoa, eta irati, telebista eta komunikazioko ekipoak eta aparatuak” (% 13,3). Inportazioetan, nabarmentzekoak dira “Material elektronikoa, eta irati, telebista eta komunikazioko ekipoak eta aparatuak” (% 29,2), “Tresna zientifikoak” (% 20,0) eta “Eraikuntza aeronautikoa eta espaziala” (% 18,9), baina gainerako kategorietako bakar batean ere ez da % 10era iristen.

Metodologiari buruzko oharra:

Goi teknologiako sektoreak (GTS), konplexutasun-maila dela-eta, ikerkuntzan etengabeko ahalegina eta oinarri teknologiko sendoa behar dutenak dira. 2009ko EJSNren arabera, sektore horrek biltzen dituen jarduerak hemen jasota daude: [Eustat web](#). Fitxa metodologikoa: [Goi teknologiako sektorearen estatistika](#)

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62